



Familia enpresaburuaren lau belaunalditan zehar, berrinbertitu, berrinbertitu eta berrinbertitu

Cristina Aragon eta Cristina Iturriozek idatzitako kasua, Antonio Aranzabal Fundaziorako eta Deusto Business Schoolerako. Egileek eskerrak eman nahi dizkiote Antonio Aranzábal Fundazioari, enpresari eta, bereziki, Antxon Alzueta, Senen Amunarriz Cortina eta Francisco Javier Alzuetari, proiektuan parte hartu eta laguntzeagatik. Kasu hau egiteko beste bi lanetan argitaratutako informazioa erabili dugu: Valdaliso, J. M. *et al.* (2008) "Los orígenes históricos del clúster del papel en el País Vasco y su legado para el presente", Eusko Ikaskuntza-Lehiakortasunerako Euskal Institutua, Donostia; eta Otermin, J.M. (2008) Amezketak, largo y tortuoso camino, Salin 8, Amezketako Udala. Kasuaren azken bertsioa 2016ko martxoan onartu zen. Itzulpena: Itziar Navarro-Deusto Unibertsitatea.

Txindokiko tontor ikusgarria dugu begien aurrean Gipuzkoako neguko egun euritsu batean, Aralar Paper fabrikako atezaina jakin minez hurbildu denean enpresaren atearen aurrean aparkatu berri duten auto ezezaguna norena den galdetzera. Autotik Antxon Alzueta atera da eta, zein den ikusitakoan, gure solaskidea lasaitu egin da. Elkarrizketa atsegin eta laburra izan dugu, enpresako gure bisita hasi aurretik. Citroën C3 txikia jada ez da ezezaguna eta mendiaren itzalean geratu ahal izango da, gu familia enpresa honen historia luze eta zirrargarrian murgiltzen garen bitartean.

Aralar Paper fabrikaren jatorria: familia baten bultzada

Aralar enpresaren jatorria kokatzeko, XX. mendearen hasierara itzuli behar dugu. Garai hartan, José Martín Alzueta, hiru seme-alabaren aita alarguna, bere koinatarekin ezkondu zen. Emakumea ere alarguna zen eta beste hiru seme-alaba zituen. Familia berriak, hortaz, sei seme-alaba zituen hasieran, baina elkarrekin beste hiru izan zituzten. Horietako bat da Santos Alzueta, Senen Amunarriz Aseguinolaza eta Manuel Amunarriz Aseguinolazarekin batera, Aralar Paper fabrikaren sortzaileetako bat.

Santos Alzueta Lasquibar Iruran jaio zen, 1934an. Gizon mugitua eta ausarta, paperezko poltsa inprimatuak egitea zuen lanbide, Villabonako lantegi batean. Ingurune hurbilena hornitzeaz gainera, poltsa horietako asko Kanariar Uhartetara ere bidaltzen ziren, uharte haietan jasotako platanoak biltzeko. Baina hori ez zen Santosen jarduera bakarra. Poltsen enpresan lan egiteaz gainera, irinen komertziala ere bazen; gasogeno bat zuen eta ustiatzen zuen; egurrezko jostailuen lantegi bat ireki zuen; eta aseguru saltzailea ere bazen, beste gauza askoren artean. Saltzaile paregabea zen: urte haietan, bere aseguru konpainiak sari bat eman zion, aseguru gehien saldu zuen saltzailea izateagatik.

Hala eta guztiz ere, Aralar Paper fabrika enpresa abian jartzeko asmoa ez zen berea izan, Regina Amunarriz emaztearena baizik. Reginak beti eragin garrantzitsua izan zuen poltsak ekoizten zituen enpresaren jardueran, eta, egun batean, senarrari proposatu zion poltsa horietarako papera egiten hastea. Reginak gogoz heldu zion asmo horri eta bere anaiei ere jakinarazi zien. Zehazki, Senen Amunarriz anaiarekin hitz egin zuen, María Luisa Aguirrerekin ezkondua zegoena, eta proiektua finantzatzeko kapitalaren bila zebilela esan zion. Ideia egokia iruditu zitzaion senitartekoei eta familiako lagunei, eta kapitala jarri zuten. Kapital horrekin eta Banco Guipuzcoanoren laguntzaz, Aralar Paper fabrika sortzeko beharrezko finantzaketa lortu zuten.

Enpresa proiektua buruan zuela, Senen Amunarriz enpresaren kokagunea bilatzen hasi zen. Negozioaren sustatzaileek bazekiten paper fabrikentzat oso garrantzitsua zela uraren kalitatea. Helburu horrekin, eta Amunarriz anaiak ibaietan arrantzan ibiltzen zirenez, Gipuzkoako hainbat ibairen uren kalitatea aztertu zuten. Hilabete batzuetan hainbat kokagune aztertzen aritu ondoren, Amezketa ibaia iruditu zitzaien erakargarriena, amuarrain askoko ibaiaren ospea baitu. 1934ko egun batean, Gipuzkoako industria gizon horiek parrokia atzean utzi eta handik gora joatea erabaki zuten, kanaberaz arrantza egitea. Baina, bat-batean, ekaitza hasi zen eta arratza egiteari utzi behar izan zioten, ura Aralar mendilerrotik arre zetorrelako eta, horregatik, ezin zelako arrantzarik egin. Ibaian behera itzuli ziren, Errota-zahar zubiraino, eta konturatu ziren Muitzaga parean jaiotzen ziren urak garden-gardenak zirela zubi inguru hartan. Ez zen horrela gertatzen, ordea, Arritzagatik zetozen urekin, lurra eta lohia baitzekartzaten. Zubi gainean gelditu ziren bateko eta besteko urei begira, eta haxe esan zien Senenek arrantza lagunei:

- *“Lagunok, gure begien aurrean dugu bilatzen ari ginena. Ibai hau, ezta egoerarik txarrean ere, ez dator arre. Ez dugu ezer gehiago pentsatu behar. Beharrezko kapitala lortzen badugu, erabakiak hartzeko unea iritsi da eta proiektua abiaraziko dugu”.*

Horrela, Amezketa lantegia kokatzeko toki egokia zela erabaki zuten, uren kalitateari begiratuta. Amunarrizek eta Alzuetak, hondarribiarrak biak, hirugarren bazkide bat bilatu nahi izan zuten, proiekturako kapitala jartzeko ere prest zegoena, baina hirugarren bazkide hori azkenean ez zen enpresan sartu eta inbertsiogile berriak bilatzen jarraitu behar izan zuten. Amezketan lurrak erosi zituzten eta, 1935. urtearen hasieran, proiektua ingeniariaren bulego batetik atera zen eta estudio horretan diseinatutako eraikineko lanei ekin zitzaien.

1. irudia. Agintariak Aralar Paper fabrikaren inaugurazio ekitaldian, 1936an



Iturria: Aralar SL

Hasierako lantegi hartan, "1. makina" deitutakoa jarri zen, gaur egun, oraindik ere, Aralar Paper fabrian erabiltzen dena. Garai hartan, inbertsio handia eskatu zuen, Alemaniako makina moderno bat baitzen, 220 cm zabal zena, eta paper mota asko ekoizten zituen, finenetatik hasi eta arruntenetara.

Gainera, instalazio berrietara eraman ziren Villabonan paper poltsak egiteko erabiltzen ziren makinak. Eta, papera egiteko eta poltsak egiteko bi lantegien erdian, etxe bat eraiki zen. Hara joan ziren bizitzera Alzueta Amunarriz familiako zazpi kideak: senar-emazteak, aitona eta lau seme-alaba zaharrenak: Maite, Francisco Javier, Antxon eta Ignacio. Alzueta Amunarriz familiaren azken alaba, Regina, etxe berrian jaiko zen, 1935ean.

1936ko martxoaren 2an inauguratu zuten, Amezketan, paper jarraituaren lantegi berria. Hasieran, paper oreka ere ekoizten zuen. Enpresaren kokaguneagatik beragatik, Txindokiren oinetan, nabarmena zen Aralar Paper fabrika SA deitzea eta markaren iruditzat Txindokiren soslai ikusgarria hartzea. Eraikina gaur egun ere hasierako kokagunean dago, baina hainbat berrikuntza egin dira historian zehar. Arkitekturari dagokionez, atezaintza azpimarratu behar da, arrazionalista estilo argikoa, Donostiako Klub Nautikoaren antzera.

2. irudia. Aralar Paper fabrika gaur egun, atzean Txindoki mendia duela



Iturria: Aralar SL

Gaur ez zaigu erraza egiten ulertzea bere garaian enpresa honek ingurura ekarri zuena. Industria iraultza ekarri zuela esan daiteke, garai hartan, Amezketan inguruan, industria bakarra baitzegoen: Arritzagako kobre meategietako jarduera. Gazte askok lanbide bat eduki ahal izan zuten herritik atera gabe, familia ugari diru sarrera iturri berriak izan zituzten, merkataritza suspertu zen... Ordura arte, ekonomia artzaintzan, abeltzaintzan eta nekazaritzan oinarrituta egon zen, horixe zen herritarren bizibide bakarra. Aralar Paper fabrikarekin, berriz, Amezketan industria bizitzaren trena hartu zuen.


Senen Amunarriz izan zen lantegi berriaren presidentea eta gerentea; Luis Emparan, idazkaria; eta Manuel Amunarriz, bokala. Amezketar askok egin zuten lan bertan. Horregatik, lantegiaren inaugurazioak jakin-min handia piztu zuen herrian. Lehenengo, meza izan zen eta, arratsaldeko bostetan, lokal eta makina berriak bedeinkatu ziren. Gauetz, lantegiko langileek afaria izan zuten, baina gonbidatu guztiak hartzeko adinako jatetxerik ez zegoenez, afaria Amezketako hainbat tabernatan egin zen.

Lehenengo hogeitun urteak: ekoizpen prozesua hobetzea

Lehenengo urteak ez ziren errazak izan. Arazo teknikoek eta muntatzeari lotutakoek gainera, enpresa abian jarri eta bi hilabeteren buruan Gerra Zibila hasi zen Espainian. Espainiako Gerra Zibilaren (1936-1939) ondorengo hamarkadak gerraoste garai gogorak izan ziren. Berrogeiko eta berrogeita hamarreko hamarkaden ezaugarri izan ziren “autarkia eta lehengaien eskasia, eta kontsumoa uzkuetzea; horrela, denbora luzea behar izan zen gerra aurreko ekoizpen mailak berreskuratzeko. Berrogeita hamarreko hamarkadaren erdialdera arte itxaron behar izan zen horretarako” (Gutierrez, 1999; Rico, 1997; Zaldua, 1998; eta Valdaliso et al, 2008).

Lehenengo urteetan, enpresak bi gerente izan zituen: Santos Alzueta Lasquibar eta Senen Amunarriz Aseguinolaza. Urte haietan, papera ekoizteko prozesua abian jarri eta efiziente bihurtu behar zen. Prozesuak zortzi etapa ditu, zelulosa lehengaitik abiatuta.

3. irudia. Papera egiteko prozesua



Iturria: Geuk sortua

Gainera, papera ekoizteko prozesuari aurretik paper orea prestatzeko prozesua ere gehitu behar zaio. Paperaren kalitatea paper orearen kalitatearen oso mendeko zen eta orearen kalitatea, berriz, orea prestatzeko erabilitako uraren kalitatearen oso mendeko. Ura, hortaz, funtsezko aktiboa zen. Horregatik aukeratu zuen familiak lantegiaren kokapena uren kalitatean oinarrituta.

Orea egiteak jakite eta metodo bat eskatzen zuen, lehengai bikaina eskuratzeko. Prozesu horretan, egurra sodarekin batera egosten zen, egurrari erretxina kentzeko. Baina, egosketa horretan, sodaren ahalmena ere gutxitu egiten zen. Gutxitze hori saihesteko soda gehiago botatzen bazen, egurra hondatu zitekeen eta, beraz, kalitate kaxkarragoko oreka lortuko zen. Ez zen erraza izaten erabilitako soda kantitatean oreka lortzea. Jakite eta esperientzia behar ziren, osagaien eta prozesuaren kontrola optimizatzeko.

Arazo horiek gainditzeko, 1942an Alemanian lixiba makina estatiko batzuk erosi ziren. Makina horiekin, oreka ekoizteko prozesua aldatu zen eta kalitatea hobetzea lortu zen. Bi urte geroago, 1944an, usainak kanporatzea saihesteko sistema bat ezarri zen, mekaptoreak deitutakoak erabiltzen zituenena. Aldaketa horiekin, lantegian egindako paperak erresistentzia handia zuen, kalitate oso oneko orearekin egiten baitzen. Baina 1957an, paper orearen ekoizpena eten egin behar izan zen, Francisco Francoren erregimenaren arau baten ondorioz.

Urteek aurrera egin ahala, enpresaren ekoizpena handitzen joan zen, eta behar berriak azaldu ziren. Horrela, 1954an, Nafarroako Ituren herriko Mendaur mendiaren magalean dagoen urtegitik ateratzen den ur jauzi elektrikoa erosi zuten. Baina energia iturria erostea ez zen nahikoa, elektrizitatea Nafarroatik Amezketara eraman behar baitzen. Helburu horrekin, garai hartarako garrantzi handiko instalazio elektrikoa eraiki zen.

Urte horretan bertan, 1954an, Aralar Paper fabrikak lehenengo aldiz esportatu zuen papera, zehazki, Alemaniara. Une horretatik aurrera, nazioarteko merkatua enpresaren helburu izango zen. Nazioarteko merkatuak zorrotzak ziren, baina Aralar Paper fabrikaren paper berezien kalitatea eta askotariko erabilerak izugarri estimatzen zituzten. Gainera, enpresa etengabeko hobekuntzaren bidera eraman zuten. Ezaugarri hori funtsezkoa izan zen bizirik irauteko eta hazteko, nahiz eta inguruko beste paper fabrika batzuk Espainiako merkatura mugatu.

- *“Bizitza osoa daramagu kanpoan saltzen, zehazki, 60 urte baino gehiago, eta gure ekoizpenaren % 50 baino gehiago nazioarteko merkatuetan saltzen dugu, berrogei herrialde baino gehiagotan”* – azpimarratzen du Senen Amunarrizek, Aralarko gerenteak.

Merkataritzaren liberalizazioak lehengaia eta, batez ere, makineria modernoa atzerrian erosteko aukera ekarri zuen. Aldaketa horren eraginez, 1957an Aralar paper fabrikak paper orea ekoizteari utzi zion eta, lehen esan dugun bezala, kalitate handiko papera ekoiztera mugatu zen. Ez zen kasualitatea izan une jakin hartan Alemaniatik bigarren makina bat ekartzea, "2. makina" deitutakoa. Jatorrizko itxura asko aldatu bada ere, hainbat hobekuntza egin zaizkiolako, oraindik erabiltzen da. Makina berri horrek 330 cm-ko zabalera zuen, eta inbertsio ahalegin handia eskatu zuen. Baina enpresari ahalbidetu zion urtean 8.000 tona paper ekoiztea.

- *"Aralarrek oso inbertsio handiak egin ditu bere historian zehar, familiak hala erabaki duelako. Kasu askotan, ordea, bai lehen eta bai orain, oso bakarrik sentitu gara. Behar-beharrezkoa izango litzateke botere publikoek, gobernuak eta tokiko administrazioek indar handiagoz laguntzea bertako enpresa txiki eta ertainek, Aralarrek bezala, aurrera eramaten dituzten inbertsio berriak. Ez gara enpresa handiak edo atzerriko multinazionalak, baina enpresa dinamikoak eta lehiakorak gara, eta, kasu askotan, ingurune globalean aitzindariak. Eta, zalantzarik gabe, lurralderako ekonomia eta gizarte hazkundera sortzen dugu"* – dio Senen Amunarrizek, Aralarko gerenteak.

Aralar Paper fabrika, 1960ko eta 1990eko hamarkadan, inbertsioak egin beharra efizientzia areagotzeko

Hamarkada horietan, enpresentzat merkatu garrantzitsuena Espainiakoa zen. Hain zuzen ere, Gipuzkoako Industria Ganbera Ofizialak 1970ean esaten zuen Gipuzkoako industrian esportazioak salmenten % 3 zirela, 1968ko datuak oinarri hartuta. Hala ere, Aralar Paper fabrikak esportazio handiagoak zituena jada urte hartan, eta kanpoko merkatuen garrantzia handitzen joan zen, 1950eko hamarkadatik hasi eta 1975. urtera arte. Etengabeko hazkundero garai hartan, enpresak, 1974an, hirugarren makina bat erosi zuen, bigarrenaren antzeko ezaugarriak zituena, alegia 446 cm-ko zabalera erabilgarria eta satinatzeko 4 metroko diametroko zilindroa.

Ekipo ondasunen, kapitalaren eta teknologiaren inportazioak liberalizatzearen eraginez, nabarmen garatu ziren papergintzaren sektorerako makineria eta osagarriak ekoizteko industriak. Sektorea bizitzen ari zen aurrerapenean atzera ez gelditzeko, aurrerapenak lantegiko ekoizpen instalazioetara ekarri behar ziren. Horregatik, laurogeiko hamarkadaren amaieran, Aralar Paper fabrikak berrikuntza etapa berri bati ekin zion: teknologia berriak ekarri zituen fabrikazioko hiru makinetara, kalitate handiko paper desberdinak ekoizteko helburuarekin. Inbertsio horiei esker, gaur egungo gerentearen iritziz –aurreko gerentearen semea eta familiaren hirugarren belaunaldiko ordezkaria Aralar Paper fabrikan–:

- *“Horrela, enpresa, poliki-poliki, ekoizten zituen paperen aukera zabaltzen joan zen, eta egoki erantzun zien sektore eta merkatu askotako eskaerei. Desberdintze estrategian oinarrituta, eta prozesuen eta kostuen efizientzia eta optimizazioa ere landuta, arrakastaz lehiatzen zen nazioarteko merkatuetan.”* - dio Senen Amunarrizek, Aralarko gerenteak.

Etengabe berritzearen aldeko apustu horrek aurrera jarraitu zuen eta 1988an, sakon modernizatu zen “1. makina”. 1993an, berriz, “2. makina” eguneratu zen. Horrela, egunean 60 tona paper ekoiztera iritsi ziren. Berrinbertsio horien helburua zen efizientzia areagotzea eta paperean garapenerako aukerak zabaltzea. Enpresa bere buruarekin oso zorrotza zenez, Aralar Paper fabrikak ISO 9002 kalitate integraleko ziurtagiria eskuratu zuen 1994an. Kontuan hartu behar dugu urte haietan oraindik oso erakunde gutxik zutela ziurtagiri hori.

- *“Ziurtagiri hori eskuratu genuen nazioarteko gure bezeroek eskatzen zigutelako; eskakizun horrek hobekuntzaren bidean jarri gintuen. Nazioarteko merkatua beti oso baliagarria izan zaigu hobetzeko”*—dio Javier Alzuetak, Aralarko Mantentze lan elektrikoen arduradunak.

Ondoren, 1995ean, Aralar Paper lantegia aitzindaria izan zen Euskadin, energiaz auto-elikatzeke lehenengo sistema erabili baitzuen, gas turbinaz baliatuta. Gaur egun kogenerazioa edo baterako sorkuntza deitzen diogun hori aurrerapen teknologiko oso garrantzitsua izan zen 1990eko hamarkadan. 1996an, inbertsio nagusiak produktu bukaturako eremu moderno bat diseinatzera eta eraikitzen bideratu ziren: enbaltzeko makina moderno bat jarri zen bertan, baita kamioientzat zama-lanetarako nasa berria ere. Hurrengo urtean, lantegia modernizatzeko azken urratsak egin ziren, lehengai prestatzeko eremua egokituta: pulperra edo zuntz askagailua, fingailuak eta alanbreak kentzekoa jarri ziren bertan.

Azken batean, berrinbertsioa, berrinbertsioa eta berrinbertsioa, kostuetan efizientzia lortzeko eta produktu gama desberdindua ekoizteko, nazioarteko merkatu zorrotzaren eskakizunei erantzun nahian.

Azpinarratzekoa da, hala ere, efizientiaren helburua eta inbertsio ahalegina ez dagozkiola soilik makineriari eta teknologiari. Prozesuen mailaz mailako automatizazioak horiek erabiltzeko pertsonak ere egokitu beharra ekarri du eta, sarritan, enpresak langile berriak ere hartu behar izan ditu. Baina, zuzendaritzari dagokionez, pertsona gutxik osatua izatea bilatu dute beti, enpresari muskulua emateko baina ez gantzik, lehiatzeko efizientzia ezinbestekotzat duen sektore hain lehiakorrean.

- *“Prozesua etengabe egokitu behar denez, pertsonak funtsezkoak dira eta aldaketak egiteko prest egon behar dute. Enpresa honek lortu nahi duen antolaketa egitura oso sinplea da, ez du kargu gehiegirik nahi; ni, esate baterako, gerentea, orkestra gizona sentitzen naiz, denetarik egiten dugu, behar den gutzia, uneoro”* –dio Senen Amunarrizek, Aralarko gerenteak.

2000-2015erako helburua: efizientzia, produktua desberdintzea eta merkatuak dibertsifikatzea

Paperaren ordeztaila erabiltzea eta idazkeraren ordeztailak erabiltzea urratsez urrats gertatzen ari den joera amaigabea da. Eta horrek izugarri jaitsi du offset paperaren edo inprimatzeko paperaren erabilera. Bilakaera gero horrek, sektoreko lehiakideen lehiakortasunarekin batera, paper fabrika asko ixtea ekarri du, inprimatzeko oinarritzko papera egiten zutenak nagusiki. Aitzitik, gero eta erabilera handiagoa du beste elementu batzuekin, plastikoarekin, esate baterako, konbinatutako paperak. Ildo horretatik, indar handia hartzen ari da paper berezi plastifikatua, estali, paketatuta edo etiketak jartzeko erabiltzen dena. Izan ere, packaging erakargarriagoetarako aukera ematen du eta, aldi berean, produktuaren erabilerari lotutako irtenbide eraginkorrak ahalbidetzen, esate baterako, irekitzeko erraztasuna edo produktu solido edo erdi-solidoentzat bestelako edukiontzia.

Horregatik guztiatik, ez da zaila ulertzea Aralarrek hazteko aukera ematen dioten merkatu hobi berrietan sartzea lortu izatea, inbertsio asko eginez, nahiz eta, garai bertsuan, ohiko paperera mugatzen ziren paper fabrika askok porrot egin, merkatu nagusia jausi zitzaielako eta lehiakide efizienteagoak gainditzerik izan ez zutelako. Horretarako bi gako izan dira garrantzitsuak: nazioartean hazten ari ziren merkatuetara hurbiltzea, eta etengabe efizientzian eta berrikuntzan hobekuntzak bilatzea, merkatuaren joerei jarraituz. Lehenengoari dagokionez, nazioartekotzearen bideari eutsi zaio, paper bereziko hobi nahiko handietan lan eginez, esate baterako, garagardoetarako etiketak.

- *“Lasterketa zoro batean murgilduta gaude: orain dela urte batzuk, bost urtean behin aldatzen genuen; orain, hiru urtean behin inbertsioak egin behar ditugu makinak espezializatu eta gauza berriak egiteko edo lehengo gauzak modu efizienteagoan egiteko. Erritmoa oso handia da, produktu berri gero eta sofistikatuagoak garatzeko lasterketa bizia da, commodityak edo paper arrunta bazterrean utzita.”* - azaltzen du Senen Amunarrizek, Aralarko gerenteak.

Horretarako, Aralar Paper fabrikak bost kontinenteetako hogeita hamar herrialde baino gehiagotan ditu agenteak eta ordezkariak, eta hitzarmenak ditu logistikako enprekin, produktuaren ematea bermatzeko. Bestalde, paperaren sektorearen barruan, dibertsifikazio erlaxatua du helburu, berrikuntzaren bilaketan oinarritzen dena, merkatuan dauden behar berriei erantzuteko.

1. taula. Aralarren nazioarteko presentzia

Kontinentea	Herraldea
Agenteak Europar	Espainia (Sevilla, Bartzelona, Madril, Ribarroja del Turia, Santa Cruz Tenerifekoa)
	Alemania (Meerbusch)
	Benelux (Slochteren)
	Frantzia (Tolosa)
	Grezia (Thessaloniki)
	Italia (Monza)
	Portugal (Prime-Viseu)
	Erresuma Batua eta Irlanda (Hampshire)
	Errusia (Mosku)
	Turkia (Istanbul)
Agenteak Amerikan	AEB (New York)
	Hego Amerika (Buenos Aires)
	Kanada (Montréal, Québec)
Agenteak Afrikan	Maroko (Casablanca)
	Hegoafrika (Cape Town)
Asiako ordezkaritza	Hong-Kong
Agentziak	Australia, Zeelanda Berria, Indonesia, Singapur, Malaysia, Thailandia, India, Hong Kong, Txina, Taiwan, Hego Korea,...

Iturria: Aralar SL

Espiritu berritzaile horren erakusle, Aralarrek, batez beste, urtero hamabost produktu berri garatzen ditu. Ildo horretatik, esate baterako, erabili eta botatzeko mota guztietako jantziak egiteko paper-ehuna sortzeak aukera eman die osasun sektorean sartzeko.

- *“Bezeroak behar dituen ezaugarriak betetzen dituzten paperak bilatzen ditugu, makinan sartzeko moduko paperak, paper oso teknikoak. Horrek ahalegin handia eskatzen du”* –dio Javier Alzuetak, Aralarko Mantentze lan elektrikoen arduradunak.


Horregatik guztiagatik, mende berrian, inbertsioek ez dute etenik. 2000. urtean, azpiegiturak eguneratzeko prozesuari jarraituz, "3. makina" modernizatu zen. Zehazki, iztukagailu bat jarri zitzaion, *Speed Flow*, lisagailuak, superkalandrak, LAS eta Janus. Horrek guztiak aukera eman zion Aralar Paper fabrikari oso paper desberdinak eskaintzeko. Hain zuzen ere, makina horrekin gaur egun ekoizten dituen paperen % 98 ez zen existitzen 2000. urtean. Urte horretan, iztukatuen sukalde berria sortu zen.

2006an, berriro ere "1. makina" berritu zen eta, horrela, egunean 100 tona ekoiztea lortu zen. Alemaniako Voith enpresaren azken teknologia erantsi zitzaion eta, horrekin batera, iztukagailua, *Speed Flow*, lisagailuak, superkalandrak, LAS eta Janus. Urte horretan bertan, marka modernizatzea erabaki zen eta enpresaren merkataritza izena aldatzea. Aurrerantzean, Aralar izango zuen izena.

Gaur egun, Aralarrek milaka tona paper berezi egiten ditu bost kontinenteetako berrogeita hamar herrialde baino gehiagotarako, Txina, Korea edo Hego Amerika tartean. Toki horietan guztietan oso baloratua da Aralarren produktua. Hain zuzen ere, Aralarren fakturazioaren % 75 nazioarteko merkatuetan saltzen da.

- *“Lehiakide gutxik jarraitu dute produktuak eta merkatuak dibertsifikatzeko Aralarrek bezain estrategia indartsua, oso gutxik dute paper berezien hain aukera zabala. Beste bik edo hiruk antzeko gauzak egiten dituzte, baina horietako inork ez du guk bezalako gama zabala; Espainian, bederen, ez da Aralarren antzekorik”* – azpimarratu du Senen Amunarrizek, Aralarreko gerenteak.


1. grafikoa. Aralarren salmenten norako geografikoa eta ehunekoak



Iturria: Aralar SL

Azken batean, enpresaren produktu gama oso zabala eta askotarikoa da, paperaren sektorean aurrera eraman den dibertsifikatzeko prozesuari esker. Prozesu horrek oraindik ere jarraitzen du, gainera. Horrenbestez, Aralarrek gaur paper bereziak egiten ditu, funtzionalitate askotakoak: etiketak jartzeko, enbalaje malguetarako, beste merkatu txikiago batzuetarako, esate baterako, oihalgintzarako transfer oihaletarako, ebakuntza geletarako jantziatarako... Horregatik, askotariko merkatuetara zuzentzen du bere eskaintza, besteak beste, elikagaietara edo oihalgintzara.

2. grafikoa. Produktu motak eta bakoitzaren ehunekoa salmenten edo ekoizpenaren gainean



Iturria: Aralar SL

Etorkizuneko Aralar, hausteko berrinbertsioak produktu berriak sortzeko

- *"Korrontearen kontra joan gara. Krisian zehar, izugarrizko lana izan dugu, eta orain, Espainiako merkatua hobeto doala dirudienean, guk jarduera gutxiago dugu, nazioarteko merkatuen hazkunde erritmoa moteldu egin delako".* - Senen Amunarriek, Aralarko gerenteak.

Aralarrek familia enpresaburuaren laugarren belaunaldiari toki egin dio, jabetzan ez ezik, baita enpresaren eguneroko jardunean ere. 2015ean, Aralarko Administrazio Kontseiluak erabaki garrantzitsu bat hartu behar izan zuen, enpresan inbertsio handi bat egiterakoan. Aurreko inbertsioetan ez bezala, oraingoan helburua ez zen ekoizpenaren efizientzia hobetzea edo paper bereziak egitea, enpresaren produktua desberdintzeko. Aitzitik, aurreko guztiarekin loturak hautsiko zituen produktu bat ekoizten hasi nahi zuten, mundu mailan aitzindaria izanik, higienarako zapitxoek merkatua iraultzeko.

Enpresako gaur egungo gerenteak, Aralarren bezero diren oihalgintza enpresako enpresek osasun jardueretarako erabiltzen den paper-ehuna nola egiten den jakinik, ekoizpen teknologia horiek paperaren sektorean erabiltzen hasteko asmoa du. Asmo hori gauzatzeko, Voithekin elkarlanean hasi da, papergintzako makineria ekoizten duen Alemaniako multinazionala. Bi enpresen arteko harremana erraza da, Voith-ek Tolosan eskumendeko bat baitu eta kokapen ekonomiak sinergiak ekartzen baitizkie.

Hainbat urtez lanean eta garapenean aritu ondoren, Voith-ek Aralarri saldu dio higienarako zapitxoak paper zuntzez egiteko aukera ematen duen lehenengo makina. Horrek esan nahi du zapitxoak guztiz biodegradagarriak izango direla eta % 100 naturalak, alegia, inongo gehigarri kimikorik gabe eginak.

- *“Guztiz gauza berria da, merkatuan ez dago horrelakorik”* azpimarratzen du Senen Amunarrizek, Aralar Paper fabrikako gerenteak.

2016an, Aralar da munduan produktu hori maila globalean ekoizten duen lehenengo ekoizlea, eta bakarra. Inbertsioak egin dira “4. makinan”. Hain zuzen ere, 2015ean, makina hori instalatzeko lantegi berria eraiki zen. Makina hori instalatuta, enpresak 25 langile berri hartu zituen.

4. irudia: 4. makina lantegian jartzea



Iturria: Aralar SL

- *“Milioi askotako inbertsio horren ondoren, Aralarri gauza bakarra falta zaio: merkatua haustea lortzea eta, horrela, bai azken erabiltzaileek eta bai zapitxoak banatzen eta egiten dituzten enpresa handiek produktu berriaren abantailak ulertzea. Zalantzarik gabe, produktu berria gaur egungo materiala ordezkatzera iritsiko da, oraingoak ingurumenari kalte asko eragiten baitizkio. Horregatik, herri administrazioek ere bultzatu dezakete material berriaren erabilera”* – azpimarratzen du Senen Amunarrizek, Aralarreko gerenteak.

Aralar, paper fabrika baino askoz ere gehiago

Enpresa honek zortzi hamarkada baino gehiagoko ibilbidea du. Urte horietan guztietan, oso zaila izango litzateke Aralar Paper fabrikak bere ingurune hurbilenarekin inongo harremanik ez edukitzea. Horregatik, enpresaren ekonomia jarduerari gizarte jarduera erantsi behar zaio, horrelako enpresa baten kasuan, ezinbestean, bere kokaleku den udalerrian gauzatzen dena. Enpresa Amezketan garatu da, mila biztanlera iristen ez den herrian. Biztanle horiek izan dira, belaunaldiz belaunaldi, enpresaren eskulanaren lehenengo iturria. Atzoko langileen seme-alabak gaurko ingeniariak dira eta enpresarekin lotuta jarraitzen dute.

Baina enpresaren eta lurraldearen arteko harremana ez da lanpostuetara mugatu. Enpresaren ibilbide osoan zehar, familia enpresaburuak, familia enpresaren bidez, inguruko kultura, ekonomia eta gizarte garapenari lagundu dio. Laguntza hori mota askotakoa izan da, baina beti egokitu da inguruko beharretara eta errealitatera. Babes filantropiko hori ez du soilik Aralar Paper fabrikak gauzatu. Beste enpresa garrantzitsu askok ere horrela jokatu dute iraganean. Horrek ez du esan nahi, nolana ere, ez ditugunik aitortu behar "herriko mezenas" horien eraginez lortutako aurrerapenak.

Hasieran, amezketar askori lana emateaz gainera, Aralar paper lantegiak herrian azpiegitura garrantzitsuak eraiki zituen. Ekarpene hori bereziki hirurogeiko eta hirurogeita hamarrek hamarkadetan egin zen. Urte horietan, herriak ez zuen etxe nahikorik langileentzat eta ez zuen gunerik gizarte bizitzarako. Horregatik, enpresak etxe-frontoia eraiki zuen, 1962an: guztira zortzi etxebizitza ziren, Fernando Amezketarraren plazan. Bi urte geroago, 1964an, beste 14 etxebizitza eraiki zituen; ondoren, eskolak; langileak elkartzeko tokia, eta herritar guztiak erabiltzeko frontoia. Azkenik, 1979an, "Gure Txoko" etxea eraiki zen, langileentzat 12 etxebizitza zituena. Aipamen berezia merezi du eskolak: enpresak eraiki zuen eta, gaur egun, oraindik ere, enpresaren jabetzakoa da. Hasieran, irakasleak Kristau Eskoletako Anaiak izan ziren. Ikasleen maila ez zen oso handia, baina eskolako irakaskuntzaren kalitatea oso ona zenez, maila horrek azkar egin zuen hobera. Ikasleak emaitza hobeak lortzen hasi zen azterketa ofizialetan. 1978an, eskolaren kudeaketa herriko udalaren esku utzi zen, eta gaur egun ere, udala arduratzen da irakaskuntzaz. Eskolak, Amezketako hurrez gainera, inguruko beste herrietako neska-mutilak ere hartzen ditu, Bedaiokoak esate batera, bigarren hezkuntzara arte.

Urteek aurrera egin ahala, beste behar batzuk hasi ziren agertzen. Paper fabrikak sortzen zuen kutsadura kaltegarria zen ingurumeneko eta, bereziki, Amezketara ibairako, ibai horretara isurtzen baitziren enpresak beren fabrikazio prozesuan erabiltzen zituen urak. Horregatik, 1980ko hamarkadan, Aralarrek araztegia jarri zuen ibaira isurtzen zituen urak garbitzeko. Neurri hori hartu zuen lehenengo paper fabrika izan zen. Ekimenak jarraipena izan zuen urte batzuk geroago. 2000. urtean, ingurumenarekiko bere kezkak beste araztegi bat jartzera eramane zuen, eta, horrela, 2002an, ISO 14000 ziurtagiria eskuratu zuen.

- *“... paper fabrikak eta desforestazioa lotzen dituen topikoarekin amaitu behar dugu. Kontrakoa gertatzen da, paper fabrikek arbolak behar dituzte eta, horregatik, paper fabrikak dauden tokietan, arbolak landatzen dira, papera egin ahal izateko. Zehazki, pinua, izeia eta urkia landatzen dira, azkar hazten diren arbolak direlako eta CO2 ongi xurgatzen dutenak. Guk, esate baterako, bi ziurtagiri ditugu, FSC Amerikakoa eta PEFC Europakoa, gure papera arduraz kudeatutako basoetako egurrez egiten dela bermatzen dutenak” – Senen Amunarrizek, Aralarko gerenteak.*

Ikuspegi estrategikoei erantzuteaz gainera, Aralarren inbertsioek administrazioaren eskakizunei ere erantzun diete. Horrela, 2009. urtean, enpresak inbertsio prozesu garrantzitsu bati ekin zion, instalazioak ingurumen araudi berrietara egokitzeko. Instalazioak bikoiztu egin zituzten eta homogeneizatze tanke bat eta araztegi biologiko bat erantsi zizkioten. Merkatuko arazte teknikarik onenak bilatu zituzten horretarako. Berrikiago, 2011n, kogenerazioko lantegi berri bat jarri da eta 3. makinari munduko zilindro satinatzaile handiena jarri zaio, 6 metro eta erdiko diametroa duena eta 100 tonako pisua. Piezaren dimentsioak zirela eta, lantegira ekartzea ekintza gogoangarria izan zen: inoiz ez zen horrelako piezarik garraiatu Gipuzkoako errepideetan barrena. Pasaiaiko portutik abiatuta, hiru aste behar izan zituen Amezketara iristeko, kamioiak oinezkoen abiadura baitzeraman. Inbertsio horiekin guztiekin, Aralar, gaur, ingurumen araudia eta eskakizunak betetzeko prestatuta dago.

Aralarko Natur Parkearen ateetan kokatua, enpresa honek, lortu du, berrikuntzan eta zorroztasunean oinarrituta, lantegitik urtero ateratzen diren milioika paper tonak planetako txokorik urrunenetara iristea. Prozesu orotan bezala, estropezuak eta akatsak ugariak izan dira, baina enpresaren iraupenak berak erakusten digu enpresa proiektu honek gauza asko egin dituela ongi. Paper horri esker, herri eta mendi jakin bati betiko lotuta, Euskal Herriko zati baten irudia mundu osoan dago presente. Txindoki, etorkizunean ere, enpresa honen ibilbidearen lekuko isila izan dadila.